

Programaren datu orokorrak

Departamentua:	93 - ZIUR
Atala:	9301 - ZIUR
Programa:	010 - Industri Ziberseguridadeko Zentrua Fundazioa
Funtzionala:	433 - Enpresa garapena

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Zentroaren helburua da lurraldeak dituen Fabrikazio Aurreratuaren arloko ahalmenak indartzea; bereziki, Zibersegurtasun Industrialaren arloan, teknologia-sektorearen garapena sustatuz, eta Gipuzkoako enpresen nazioarteko kokapena eta lehiakortasuna indartuz; bereziki, industria sektorekoenak.

Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

2019an, aldeztu aurretik egindako diagnostikoa egokia dela egiaztatzeaz gain, zibersegurtasunarekiko sentikortasuna nabarmen handitu da, eta horrek balioa eman dio Gipuzkoako enpresek baliabide espezialistak eta eskuragarri dituztenak izateari. Hainbat eragilerek egindako bilera, jarduerak eta lankidetzak, industria-enpresei eskainitako lehen zerbitzuek eta zibererasoen hazkundeak, agerian uzten dute Gipuzkoako enpresek zibersegurtasunaren ikuspegia beren jardueran txertatzeko eta beren gaitasunak indartzeko beharra dutela.

Behararen eboluzioa:

Oro har, aldeztu aurretik identifikatutako beharrak bere horretan dirauela egiaztatzea daiteke. 2019ko ekitaldian, Gipuzkoako industria-enpresen beharra eta balorazio positiboa ZIURen berretsi dira, zibersegurtasunaren arloko puntu independente eta kaudimendun gisa. Enpresek ZIURera eramandako behar garrantzitsuenak guztiz bat datoza 2018ko ekitaldian identifikatutakoekin: erakundea bere maila guztietan sentsibilizatzea, bere ingurune partikularretan aplikatu daitezkeen zibersegurtasun-neurriak ezagutzea, zibersegurtasun-arloko araudiak eta jardunbide egokiak ezartzeko identifikazioa eta ebaluazioa, merkatuan dauden zerbitzu profesionalak identifikatzea eta industria-produktuari aplikatutako zibersegurtasunak zer eragin duen identifikatzea, eta hirugarrenekiko harremana, produktuen hedapenean. Garrantzitsua da azpimarratzea zibersegurtasunaren arloan lan egiteko ingurune praktikoak eduki behar direla, aplikazio eta ezagutza garatzearen ezaugarriengatik.

Nori zuzendua:

Enpresak (enpresa handia, enpresa txikia, ETEak, irabazi asmorik gabeko erakundeak) eta herritarrak.

Estrategia del programa**1. Baliabideak (inputak):**

Aurrekontuak: langileak, inbertsioak eta kanpoko kontratazioak.

2. Garatu beharreko

Ezagutzaren sorkuntza bultzatzea Zibersegurtasun arloan.

Eragileen, enpresen eta industrien sentsibilizazioa eta prestakuntza.

Zibersegurtasunarekin zerikusia duten praktiken ezarpena zabaltzea eta enpresen eskura jartzea.

Prebentzioa eta esku-hartzeko tresnak eskaintzea.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Zibersegurtasun arloan prestakuntza duten pertsonak.

Zibersegurtasun arloan sentsibilizatuta dauden enpresak.

Prebentzioarako eta esku-hartzeko tresnak garatzea.

Programaren arau esparrua:

9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskadiko fundazioei buruzkoa.

4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Erregimenari buruzkoa.


Entitatearen jarduketa operatiboa

Urteko helburua: Ohiko jarduera operatiboak egitea, kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko, Zibersegurtasun Industrialaren arloan.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2019-ko Aurreikuspena	2019-ko Erreala	Agintaldiko helburua
Kontrataturako orduak laborategirako	Ehunekoa	0,00	15,00	0,00	20,00
Atenditutako enpresak	Kopurua	0,00	30,00	20,00	10,00

Joera

Kontrataturako orduak laborategirako – Ehunekoa



Atenditutako enpresak – Kopurua


Memoria
2019KO LORPENEN INGURUKO LABURPEN EXEKUTIBOA

Esan dezakegu 2019. urtea izan dela ZIUR fundazioa abian jarri eta ofizialki ireki den urtea. Jarrian, 2019ko

Memoria

jarduera planean harturiko konpromisoen betetze maila aurkeztuko dugu, eta oinarri gisa hartuko dugu aurkezturiko jardueren memoria.

1. konpromisoa: 2018an hasiriko inbertsio planarekin jarraitzea. Plan hori ZIUR fundazioaren 2018-2021 Plan Estrategikoan zehaztuta dago, eta oinarri ditu barne egokitzapena eta egoitzako altzariak eta lanabesak eskuratzea: Gauzatzea: Aurreikusiriko inbertsio guztiak eta horiei loturiko zerbitzuak gauzatu dira.

2. konpromisoa: Zentroan informatikako ekipamendu espezifikoen hornikuntza egiteko beharrezkoak diren inbertsioen zatirik handiena gauzatzea; inbertsio horiek ZIUR fundazioaren 2018-2021 Plan Estrategikoan zehaztuta daude. Ekipamendu hori izango da bai Laborategirako, bai Zentroko administrazio sarerako, modu horretan haien jarduera bermatuta egon dadin.

Gauzatzea: Informatikako ekipamendua eta informazio sistemak hornitzearekin loturiko aurreikusiriko inbertsio guztiak gauzatu dira. Hala ere, Laborategi bat ezartzeko aurreikusiriko inbertsioei dagokienez, laborategi horren helburua diseinatzeko beharrezkoak diren aholkularitza zerbitzuekin loturikoak soilik gauzatu dira. Web gune profesional bat sortzeko inbertsioei dagokienez, berriz, web mapa eta edukiak sortzearekin loturiko lanak gauzatu dira soilik, eta egiteke geratu da gune horren garapena, instalazioa eta ekoizpen fasea; lan horiek IZFE erakundeak egin behar ditu.

3. konpromisoa: 2018an lantaldea eratzeke hasiriko planarekin jarraitzea. Plan hori ZIUR 2018-2021 Plan Estrategikoan dago zehaztuta, eta 2019ko lehenengo zatian profil teknikoa duten 2 pertsona hartzean datza.

Gauzatzea: Kontratazio prozesuak aurrera eramatearen ondorioz, proiektuaren hasierako fasean ezarritako 5 profiletatik 4 sartu dira 2019. urtean: otsailaren 1ean zuzendari teknikoa, apirilaren 23an administrazio teknikaria eta 2019ko irailaren 2an azken bi profilak, industri zibersegurtasuneko arkitekto bat eta industri zibersegurtasuneko analista bat. Hori horrela, jada bete da proiektuaren hasierako fasean ZIUR fundazioan langileak sartzeko konpromisoa.

4. konpromisoa: Lehenengo zerbitzuak ematea eta Gipuzkoako Industri Zibersegurtasuneko Zentroari dagozkion jarduerak egitea, bere sustapen eta komunikazioarekin loturikoak barne.

Gauzatzea: Guztira zibersegurtasuneko 12 barne proiektu jarri dira martxan, 2020an zerbitzuak emateko. Zibersegurtasuneko lantalde espezifikoa bat sortu eta garatu da, AFMrekin lankidetzan; lantalde horretan, 8 enpresa esanguratsuk hartzen dute parte. Era berean, Bideratze Aholkularitza deituriko zerbitzua jarri da abian; zerbitzu horrek 12 enpresari eman die laguntza, horietako zenbaiti behin baino gehiagotan. Zerbitzu horri esker, enpresa horietako batzuek zibersegurtasuneko proiektuak jarri ahal izan dituzte abian, eta proposamenak aurkeztu ahal izan dituzte "Gipuzkoako industri enpresetan zibersegurtasuna sustatzeko programa" izenekora.

Konpromisoekin batera, 3 helburu kuantitatibo ere sartu genituen. Jarraian aipatuko ditugunak dira:

Zibersegurtasun Zentroak laguntza emaniko enpresa kopurua (helburu anitza):

oHelburua, 30 Gauzaturiko kopurua, 20 (AFM Taldeko Zibersegurtasuna barne)

Laborategia hirugarren batzuek edo hirugarren batzuekin loturiko jarduerak egiteko erabilitako orduen ehuneko indizea:

oHelburua, % 15 Gauzaturikoa, % 0

2019AN EGINIKO FUNTSEZKO JARDUEREN LABURPENA

ZIUR proiektua estrategikoa dela kontuan izanik, eta zer garapen fasetan aurkitzen den aintzat harturik, gure ustez garrantzitsua da aurretik eman dugun informazioarekin batera beste informazio bat ere ematea, alegia, funtsezko gertaerei eta jarduera esanguratsuei loturikoa, erabakigarriak baitira proiektuaren garapenerako.

Gipuzkoako Zibersegurtasun Zentroaren egoitza modu integralean egokitzea eta abian jartzea. 2018ko abuztuan lizitazioa argitaratu zenetik, lan hori gauzatzeko 12 hilabete baino gehiago behar izan dira. Ia lan guztia Fundazioko langileek egin dute. Zentroaren jarduera propioak garatzeko orduan 6 hilabeteko atzerapena izan da, gutxi gorabehera. Horren arrazoi izan dira eginkizunak askotarikoak izatea, zerbitzuak kontratatzeke administrazio arloko zailtasuna, behar bezala funtzionatzeko funtsezko alderdi batzuk berriro zehaztu beharra eta aurreikusi gabeko beharrak identifikatzea.

Gipuzkoako Zibersegurtasun Zentroaren irekiera ofiziala. Irekiera azaroaren 15ean izan zen, eta 100 pertsona baino gehiago bertaratu ziren; horietatik, % 50 baino gehiago industri enpresetakoak eta zibersegurtasunekoak ziren.

Zibersegurtasun Laborategia sortzeko prozesua garatzea, egungo laborategien, zibersegurtasunean adituak diren enpresen eta Gipuzkoako industri enpresen ikuspegia barneratuz.

oBisita 5 teknologi zentroetako 13 laborategitara, zibersegurtasuneko 2 zentro publikotara, zibersegurtasuneko 5 enpresetara eta unibertsitate batera.

oEgiaztapena aditua den zerbitzu enpresa batekin, espediente txiki baten bidez.

oEgiaztapena Gipuzkoako industri enprekin, 315 enpresari eginiko inkestaren bidez.

GFari laguntza ematea Zibersegurtasun Estrategia garatzen

Memoria

oEkonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Oreka Departamentuari laguntza ematea, Gipuzkoako industri enpresetan zibersegurtasuna sustatzeko programaren bigarren edizioaren oinarri teknikoak hobetzeko, bai eta programa hori Gipuzkoako industri eta zibersegurtasun enpresen artean zabaltzeko ere.

oGFaren eta TECNUMen arteko lankidetzaren garapenari laguntzea, industri enpresentzat zibererresilientzia eredua garatzen.

Jarduerak garatzea araudia betetzen dela bermatzeko

oENS Segurtasun Eskema Nazionala eta DBEO Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra betetzeko proiektua aktibatzea.

oLan arriskuak prebenitzeko sistema ezartzea eta osasuna zaintzeko sistema ere.

Zerbitzuak kontratatzea jarduera behar bezala garatzeko

o69 espediente txiki.

oLizitazio publikoko 2 prozesu, Adinberri eta ZIURerako akordio esparru bat barne.

Fundazioa eragileen egungo ekosisteman sartzeko jarduerak

Lankidetz hitzarmena lan tresna gisa ezartzea, ebidentzia gisa izanik lankidetz hitzarmen bat sinatzea Industri Zibersegurtasuneko Zentroarekin, hitzarmen bat lantzea INCIBE Espainiako Zibersegurtasun Institutu Nazionalarekin eta balizko lankidetz hitzarmen baten aukera aztertzea zibersegurtasun enpresa batekin.

Harremana egin eta garatzea zibersegurtasunaren eta ziurtapenaren arloan erreferentziazkoak diren zentro eta eragile nagusietatik seirekin: INCIBE Espainiako Zibersegurtasun Institutu Nazionala, CCN Zentro Kriptologiko Nazionala, Ertzaintzako delitu digitalen zerbitzua, CCI Industri Zibersegurtasuneko Zentroa, Tüv Rheinland, SGS.

Gipuzkoako ekintzailetza ekosistemako tresna gisa aztertzea ZIUR erakundea, BICGipuzkoarekin batera.

Zibersegurtasunaren arloan gaitasuna duten teknologi zentro eta unibertsitate guztiekin harremanetan jartzea, haien gaitasunak ezagutzeko, ZIUR proiektua aurkezteko eta ZIUReko laborategiak egungo laborategiei emaniko balioa egiaztatzeko.

Zibersegurtasuneko 30 enpresarekin harremanetan jartzea (Gipuzkoako zibersegurtasun enpresen % 100), 5 startup barne, proiektua azaltzeko, haien ikuspegia eta beharrak ezagutzeko, eta Fundazioak ematen duen balio erantsia aztertzeko.

Gipuzkoan jarduten duten enpresa eragile nagusietako bostekin harremanetan jartzea eta lankidetz ereduak aztertzea: AFM, GAIA, ELKARGI, Gipuzkoako Merkataritza Ganbera eta Mondragon Taldea.

Harremanetan jartzea zibersegurtasun soluzioen banatzaile nagusietako hamalarekin eta erreferentziazko fabrikatzaileekin zibersegurtasuneko eta industria automatizazioko produktuen arloan, proiektua aurkezteko, ebaluatzeko eta lankidetzak garatzeko.

Fundazioaren sustapena eta posizionamendua indartzera bideraturiko jarduerak

ZIUR fundazioaren lehenengo komunikazio plana zehaztea, , komunikazioa martxan jartzea sare sozialen bidez, eta ZIURen bideo ofiziala sortzea

Kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko 11 jarduera egitea (kalkulatzen da 125 enpresa baino gehiagotara iritsiko direla), hirugarren batzuek antolaturiko ekitaldien bidez. (AGERs-en Urteko Batzarra, BasqueIndustry 4.0, Gipuzkoako Merkataritza Ganberaren Digitalizatzeko Jardunaldia, PwC Enpresa Gosaria, ULMA Group Jardunaldia, I68 Taldearen Zibersegurtasun Jardunaldia, MU Masterraren 2. Edizioaren Itxiera, Bidasoa Bizirik Sentsibilizazio Saioa, Orkestra Sentsibilizazio Saioa. Industria produktuaren zibersegurtasunari buruzko saioa. Ikerlan)

Komunikabideetan agertzea eta zabaltzea: prentsan (Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa eta Berria), irratan (Onda Vasca, SER-Radio San Sebastián katea, Radio Euskadi eta Onda Cero) eta telebistan (Teledonosti, ETB).

Industri zibersegurtasuneko erreferentziazko ekitaldietara bertaratzeko, nazioartekoetara barne (Industri Zibersegurtasuneko Nazioarteko Biltzarra, XIII. Urteroko Zibersegurtasuneko Jardunaldiak CCN-CERT, BasqueIndustry 4.0, Urteroko Biltzarra ISA 2019 eta SANS ICS Europe Summit, Informazioko Segurtasunaren arloko Nazioarteko Topaketa, NextSecure19).

Gipuzkoako enpresa ehunari zerbitzuak ematera bideraturiko jarduerak

Bideratze aholkularitzako zerbitzua garatzea. Zerbitzu horrek zuzenean jarduten du Gipuzkoako 20 enpresatan.

Zuzeneko harremana Gipuzkoako hainbat erakundetako informazio eta zibersegurtasun sistemetako 23 arduradunekin.

Kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko 11 saio (aurreko atalean adierazi ditugu).

Mekanismoak aztertzea eta harremanetan jartzea hezkuntzako 5 eragilerekin, ZIUR erakundeak talentu profesionala garatzen lagundu dezan zibersegurtasunaren arloan.

Memoria

ONDORIOAK

Esan dezakegu 2019. urtea izan dela ZIUR erakundea martxan jarri eta zentroa ofizialki ireki den urtea. Urte honetan estreinatu dira instalazioak, eta lanean hasi da proiektuaren hasierako faserako zehazturiko lantalde osoa.

Urte honetan, Fundazioak instalazioak martxan jartzeko batez ere Fundazioaren beraren baliabideak erabili dira soilik, eta, horren ondorioz, gutxi gorabehera sei hilabeteko atzerapena izan da ZIURen xedearekin loturiko jarduerak garatzeko orduan.

Zibersegurtasunaren sektorean posizionatzeko urtea izan da apustua eta proposamena zehaztu ahal izan ditu ZIUR fundazioak. Parte hartzen duen ekosistema guztiari eskaini zaio aukera Fundazioaren lan ildoak eraikitzen laguntzeko.

Urte honetan, enpresei emaniko lehenengo zerbitzuak garatu ahal izan ditugu, bereziki sentsibilizazioaren eta bideratze aholkularitzaren arloan; hor barnean aipatu behar dugu sektoreko lantalde baten sorrera AFMrekin lankidetzan.

Urte honetan gauzatu ahal izan da 2018an egin ezin izan zen inbertsio plana, baita 2019rako aurreikusiriko inbertsio plana ere, salbu web gunea garatzea eta zibersegurtasuneko laborategia hornitu eta instalatzea. Horrek esan nahi du 2018rako eta 2019rako aurreikusiriko inbertsioetatik % 50a gauzatu dela. Inbertsio plan osoa 2020ko ekitaldian gauzatuko da.

Urte honetan, ohiko gastua Fundazioaren gaitasun operatibora egokitu da. Egoitza abuztuan amaitu da eta lantalde guztiaren kontratazioa egiten irailean amaitu da.

Urte honetan, Fundazioak bere barneko nahiz kanpoko jarduera egiteko kontuan izan ditu hizkuntza politikak eta genero politikak.

oHizkuntza normalizatzeko plan espezifiko egitea ZIUR erakundearentzat, egiturazko gida izan dadin honelako erakundeei eskatzen zaizkien helburuak lortzeko.

oLantaldearen hizkuntza gaitasunak garatzea, euskara izan dadin zerbitzuak emateko eta lanerako hizkuntza.

oEuskara erabiltzea modu egokian Fundazioaren eguneroko komunikazioetan eta komunikazio ofizialetan, bai bide telematikoen bidezko komunikazioetan (sare sozialak, posta elektronikoa, jardueretarako gonbidapenak, web gunea, korporazioaren bideoa...), bai komunikabide fisikoetan (inkestak, jardueren informazio orriak, informazio txostenak, instalazioetako seinaleak, bisita txartelak)

oDeiak hartzean eta Fundazioaren hasierako aurkezpenean lehentasuna ematea euskarari hasierako hizkuntza gisa.

Barneko eta kanpoko jarduera guztietan kontuan izan da genero ikuspegia, oinarri gisa harturik Gipuzkoako Foru Aldundiak aplikatzen dituen politikak kontratazio publikoko prozesuetan, bai eta edozein informazio eduki sortzean eta hirugarren batzuekin harremanetan jartzeko ereduak sortzean ere.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Zibersegurtasunari buruzko sentsibilizazio jarduketaren garapena, prestakuntza, eta tresnen eta zerbitzuen garapena.

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	1.249.673,00	812.730,00		
1.1 Ekintza				
Zentroak aurreikusitako jardueraren garapena	843.408,80	299.697,20		100,00
1.2 Ekintza				
Zentroaren ekipamendua	406.264,20	513.032,80		51,00

GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Diru-sarrerak eskuratzea

Beharraren eboluzioa:

Zibersegurtasunaren sektorean aritzen diren profesionalak gizonetzkoak dira gehienbat. Programa honen helburua da sektorea kolektibo guztiei ezagutzera ematea sustatzea eta emakumeak sartzen laguntzea

Kuantifikazioa: 40.636,50 (% 5,00)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua	Esleitutako adierazlea
Or 1. Prozedura administratibo guztietan genero ikuspegia txertatu.	(% 100,00)	Or 1.4. Barneko zein kanpoko komunikazio inklusiboa, genero estereotiporik gabekoa, emakume eta gizonak berdin ikustaraziz eta hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista eginez.	75,50	Sexuaren aldagaia eta lortutako emaitzen genero azterketa txertatzen dituzten azterketa eta ikerketen ehunekoa (egindako azterketa eta ikerketa guztiekiko). Berariazko trebakuntza jaso duen berdintasunerako koordinazio foru egituretan parte hartzen duten pertsonen ehunekoa (egitura horietan parte hartzen duten pertsona guztiekiko). Berdintasunerako klausulak jasotzen dituzten kontratu eta diru-laguntzen ehunekoa (egindako kontratu eta diru-laguntza guztiekiko).

HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

Beharraren eboluzioa:

Fundazioaren helburuaren arabera, Gipuzkoako enpresekin izan beharreko komunikazioa funtsezko jarduera da enpresei zibersegurtasunaren arloan dituzten gaitasunak sendotzen laguntzeko. Hori dela eta, euskararen erabilerak jasota egon beharko du fundazioaren prozesuetan, arreta handiagoa jarritz enpresekin duen harremanean, hartara, fundazioaren ezagutza eta baliabideak eskuratu ditzaten bermatzeko.

Kuantifikazioa: 40.636,50 (% 5,00)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	(% 50,00)	Komunikazio Planean hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da	100,00
2.2. Bezeroekiko/Herritarrekiko harremana ahoz zerbitzua eman eta produktua eskaintzeko orduan	(% 50,00)	2.2.2. Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak	51,00

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA			
Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Gauzatzea Ejecución	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	296.361,00	221.357,00	74,69
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	611.120,00	124.127,00	20,31
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS			
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES			
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	907.481,00	345.484,00	38,07
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS			
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	342.192,00	467.246,00	136,54
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL			
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	342.192,00	467.246,00	136,54
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS			
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS			
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras			
Guztira / Total	1.249.673,00	812.730,00	65,04

PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL		221.357,00		
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		124.127,00		
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES				
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes		345.484,00		
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES		467.246,00		
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL				
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital		467.246,00		
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras				
Guztira / Total		812.730,00		
Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %		65,04		

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA				
Sarreraren kapituluak Capítulos de ingresos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Gauzatze Ejecución	Gauzatze % % Ejecución	Gastuari lotutakoak Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS				
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS				
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS	83.000,00			
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	824.481,00	523.845,00	63,54	
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES				
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	907.481,00	523.845,00	57,73	
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES				
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	342.192,00	342.242,00	100,01	
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	342.192,00	342.242,00	100,01	
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras				
Guztira / Total	1.249.673,00	866.087,00	69,31	